



Azken urte hauetan, nekazaritza, sektore ekonomikoa izatetik, kezka sozial handiko iharduera izatera pasa da. eta egia esan, horretarako bada arrazoirik; urte gutxitan aldaketa handiak jazo baitira sektorean, batzuk onuragarriak eta beste batzuk ez hainbeste.

Noaui



Zertan da Euskal Herriko nekazaritza tradizionala?

Aitor Bengoa Ansa*

XXI. mendeko nekazaritza-eredua zein izango den aurreikustea zaila da teknologia, zientzia eta erabaki politikoen menpe dagoen iharduera aldakor honetan. Edonola ere, argi dago, orain hartzen diren erabakiek etorkizuneko nekazaritza baldintzatuko dutela eta, beraz, arreta handiz jarraitu beharreko sektorea dela. Izan

ere, kontuan hartu behar da, jokoan dagoena, ez dela gure baserritarren etorkizuna soilik, herri baten kultura eta bizitzeko modu bat baizik.

Zaharrak berri

Pierre Etcheverryk idatzirikoa Laborarien Gidarian azaltzen den

pasarte honek, gaur egungo arazo asko aspaldikoak direla ohar-tzeko balio dezake: "Zertan diren laborantzan ari direnak: Hainintz arrangura dira bazterretan esku lan guti dela eta denak ere ez duela biziki balio; nigar egiten da zeren bazterrak husten diren eta hiriak bethezen; empletatuak bethi emendatzen ari dira. Laborariak ez du begi onez ikusten bere semea



BASERRIA, EUSKAL NEKAZARITZAREN BABESLEKU MENDEETAN ZEHAR

Euskal Herriko nekazaritzaren historia aztertzeke garaian, baserria garrantzi handiko elementua izan da. Baserria, etxebizitza gisa edo garai bateko ekonomi erakunde gisa uler daiteke.

Alberto Santanak, bere "Baserria" liburuan dioenez, Baserria zentzu ekonomiko zabalenean interpretatzen bada, jatorria Erdi Aroan izango luke.

Behe Erdi Aroan, nekazariena zen gizarte-klase sozial ugariena, baina bigarren mailako biztanleak ziren eta jauntxo bakar batzuen menpe bizi ziren. Garai hartako nekazariak hiru kategoriatan sailka daitezke. Alde batetik, aitonen semeak zeuden. Hauek, landatzen zituzten lurretan eskubideak zituzten eta ez zuten inolako zergarik ordaintzen. Bestetik, nekazari askeak edo erregearen petxariak zeuden. Hauek ere, lantzen zituzten lurretan autonomia zuten, baina baserriko ustiakuntza ezin zioten sendea ez zenari utzi, eta horrez gain, erregearen zergak ordaindu beharrean izaten ziren. Azkenik, hirugarren taldea, mailarik baxuenean zeuden nekazari-morroiek osatzen zuten. Ez zuten inongo askatasunik eta jauntxoaren baimenik gabe ezin ziren ezkondu. Erdi Aroko baserriak, oholezko txabolak ziren, barneko eskeletoa habeekin eraikitzen zen eta kanpotik oholezko paretak izaten zituzten.

Harrizko lehen baserriak, XV. mendean eraiki ziren eta garai hartan nekazari aberatsek bakarrik izaten zuten horrelako eraikuntza egiteko ahalmen ekonomikoa. Izan ere, baserria eraikitzekeo hargin-taldean soldatak ordaindu behar izaten ziren. Haritz-egurra berriz, dohainik eskuratzen zuten herriko basoetan.

XVI. mendean, baserri asko egin zen, harriz eta egurrez. Oraindik badira, garai hartan eraiki eta zutik dirauten baserriak. Balio handiko eraikinak dira; zaharrak izateaz gain, kalitatezko zurgintza eta hargintza baitute. Mota askotakoak ziren, baina denek bi solairu zituzten behekoa, familia eta abereentzat eta goikoa uzta jasotzeko (sagarrik eta garia batez ere). Baserri gehienek, dolarea eta upategia izaten zituzten. Izan ere, XVI. mendea, garai ona izan zen euskal baserriarentzat.

XVI. mendearen bukaera aldera, hiriguneetako merkataritzak eta untzigintzak krisialdia izan zutenean, jende asko baserrira begira jarri zen eta baserri guztiak bete ziren. Askotan zaila izaten zen denentzat lurra aurkitzea.

Egoera hartan, eta miraria bailitzan, artoa azaldu zen. Honek, gariak baino etekin handiagoa ematen zuen lur-azalera berean. Artoa sartzearen ondorioz, nekazari aberatsenek baserri berriak eraiki zituzten alogeran eskaintzeko, eta bazter guztietan artoa ereiten hasi ziren. Baso eta otadiak artoa ereiteko garbitu ziren eta abereak ukuiluan denbora gehiago edukitzen ziren. Une gozoak izen ziren haiek.

Garia ordea, ez zen erabat desagertu. Izan ere, nekazariak baserri-jabeak eta eliza gari-anegekin ordaintzen zituzten eta haien zati garia ereitera beharturik zeuden.

Noaual



Garrantzi handiko elementua izan da baserria Euskal Herriko nekazaritzan.

XVIII. mendean, lurra karearekin ongarrizten hasi ziren eta kare gehiegi erabiltzeagatik lur asko erre egin zen bazterretan, laborantzarako lur onenak hondatu egin zirelarik.

XIX. mendean lurra goldatzeko sistema berriak asmatu ziren eta, ondorioz, produkzioa asko emendatu zen.

XX. mendearen hasieran, metal-, papera- eta ehun-fabrikak ireki zirenean, nekazari askok baserria utzi egin zuten eta beraien balioa asko jaitsi zenez, maizter askok jabeari baserria erosteko aukera izan zuten. ✓

ezin ezkonduz, ibilirik ere laborantza ona, zeren hainintz neskato gazteek nahiago baitute yaunskila tcharrena laborari abilena baino. Gauza horiek guziak egiak dire eta bethi hola izanen da, laborarien bizi moldeak hain apha egoiten direno. Oraiko egunean, yende

klasa guziak handizkiago bizitzen dire; yatekoa hobea da; yostetak nahi dire; kurridak gutizia emaiten du; urguluak lehen ez ziren behar orduak kreatzen ditu; eskolak ere bethi emendatuz bertze asko gauza galdegiten ditu. Hola hobekiago dea yende ala gaizkiago ?"

Nekazaritzan eraldaketa handiak izan direla esaten dugu behin eta berriro baina harrigarria da arestiko pasarte hori 1922. urtean idatzi zela ikustea eta bertan esaten diren zenbait gauza, gaur egun bere horretan daudela baieztatzea; batez ere, hiritar eta



5b eta Leader II, nekazaritza bultzatu eta hobetzeko programak

ZETIAZ-Elhuyar: Zer dira 5b eta Leader II programak?

Xabier Arruti: Europako Batasunak, lurralde bakoitzaren arazo eta beharren arabera, zonifikazioa bat egiten du. Zonifikazio honetan, 5b zonaldeak nekazaritzako garapena behar duten zonalde gisa definitzen dira. Eskualde hauetan, 5b helburua eta Leader II programa aplikatzen dira. Bi programa hauek bi aldiz jarri dira martxan EAEn. Lehenengo aldian, Arabako bi eskualdetan egon zen indarrean, baina orain EAE-ko hiru lurraldeetako zenbait eskualdetan jarri da indarrean eta 1994-1999 bitartean iraungo du. Beraz, urte hauetan subentzionatuko diren proiektuek Europatik eta Euskal Administrazioetik jasoko dute dirulaguntza (erdia Europatik eta beste erdia Euskal Administrazioetatik). Leader II programaren berezitasunak 5b helburuarekiko bi dira nagusiki: batetik proiektu berritzaileentzat da, eta bestetik, Leader programaren bultzatzaileak, Mendikoi, Nekazaritzako Garapen Institutua eta Mendi Elkarreak dira.

A. Bengoa Ansa



Xabier Arruti. 5b eta Leader II programetako Gipuzkoako Koordinatzailea.

ZETIAZ-Elhuyar: Euskal Herrian non gauzatzen dira programa hauek?

Xabier Arruti: EAEn, 7 zonalde daude: Arabako Ibarak, Arabako Mendialdea, Arabako Errioxa, Arratia-Nerbioi, Gorbeia Inguruak, Enkartzazioak eta Tolosaldea-Urola. Nafarroan berriz, 5b helburuaren funtzionamendua zerbait bereziagoa da eta Leader II programak eskualde desberdinak hartzen ditu, batez ere iparraldean. Ipar Euskal Herriari dagokionez, aipatu beharra dago Akitania eskualdean barneratuta dagoela eta hemen Leader II programako proiektu desberdinak

baserritarren harremani dago-kiona. Izan ere, eta nekazaritzaz eta baserriari buruz asko idatzi eta hitz egin den arren, oraindik, baserritarrek ez dute kaletarrendagandik merezi duten benetako begirunea jaso. Askotan aurreiritzi okerrez beteriko ikusmoldeak izaten ditugu, onerako eta txarrerako, eta ez da ezagutzen langintza honen benetako funtsa. Gaur egungo eta etorkizuneko nekazaritza ulertzeko ezinbestekoa da lehenengo nekazaritzaren pasadizo batzuk ezagutzea. 60. eta 70.eko hamarkadetan, baserrietatik jende asko hirietara jaitsi zen lanera, baina kasu askotan, fabriketan lan egin arren, baserrian

bizitzen segitu zuten. Ondorioz, lur-sail askotan pinu-landareak aldatu ziren eta baserriko lanak arindu. Garai hartako baserritarren seme-alabak hirira jaitsi ziren bizitzera eta, beraz, gaur egungo baserritarren batezbesteko adina handia da. Garai hartan eraiki ziren industrialde askok, nekazaritzarako lur onenak hartu zituzten eta arazo honek, oraintxe arte iraun du. Izan ere, Euskal Herriko bailara gehienetako lur ordekak, industriak eta herriguneez estali dituzte, eta nekazariak bailaran gora, lekuri aldapatsuenetara bidali dira. Dena ez zen, ordea, kalterako izan, eskulan eskasiak, eraldaketa

teknologiko handiak bultzarazi zituen eta baserrietako produktioa asko emendatu zen. Esate baterako, Gipuzkoan eta Bizkaian, 1960. urtean 47 motokultore zeuden eta 1972.ean berriz, 2.698. Laburbilduz, 60. eta 70.eko hamarkadetan, nekazaritza artisauegituretik, sistema kapitalistara murgildu beharrean aurkitu zen, eta ordurarte nekazariak etxerako ekoizten zituzten jaki asko baztertu eta merkatuan gehien eskatzen ziren elikagaiak ekoizteari ekin zioten. Bestetik, garai horretan beste fenomeno aipagarri bat gertatu zen. Baserrian baino lan egiten ez zuten baserri-buru asko kanpora



daudela. Horietako bat da "Barneko Euskal Herria" deritzona.

ZETIAZ-Elhuyar: Zein irizpide erabiltzen dira 5b eremuak aukeratzeko?

Xabier Arruti: Batez ere, biztanlegoaren beherakada eta nekazaritzak beste sektoreekiko daukan pisu erlatiboaren garrantzia. Biztanleko Barne Produktu Gordina Europako batezbestekoa baino txikiagoa izatea, zerbitzu aldetik azaltzen diren eskasiak eta abar dira erreferentzia.

ZETIAZ-Elhuyar: Zein dira programa hauen helburuak?

Xabier Arruti: Nekazaritzako iharduerak bultzatu eta hobetzea, lanpostuak sortzea, batez ere, industrian eta zerbitzuetan. Bestalde azpiegitura ekonomiko eta sozialak bermatu behar ditugu. Izan ere, dirulaguntza hauek ez dira nekazaritzako ihardueratara mugatzen eta nekazaritza-
-eskualdeetako bizimodua era guztietan hobetzea bultzatzen da. Gakoa nekazaritza-
-eskualdeetako biztanleria mantentzean datza. Bertan jendea bizi bada, nekazaritzako lurak landuko dira eta era berean zerbitzuak bere kasa etorriko dira. Horregatik gure helburu nagusietakoa, gazteak herrietan bizitzen gelditze baliabideak ipintzea izaten da. Eskualde hauen arazorik larrientzat jo daiteke biztanleria murrizketa.

ZETIAZ-Elhuyar: Nola ikusten dituzu mendiko nekazaritzan gertatzen ari diren aldaketa hauek guztiak? Esate baterako, turismoak garrantzi handia hartu du urte gutxitan.

Xabier Arruti: Une honetan nekazaritza tradizionalan gertatzen ari diren aldaketak beharrezkoak dira. Arriskutsua da herri osoa nekazaritzatik soilik bizitzea eta leku horietan beste elementu batzuk sartu behar dira. Turismoarekin lotuta zerbitzuak etortzen dira eta hauek onuragarriak dira edonon. Batzuetan, nekazariak oso eszeptikoak izan ohi dira edozein aldaketaren aurrean, eta neurri batean normala da, baina aldaketak beharrezkoak dira nekazaritza garatzeko. Garai batean, garia ereiteari utzi eta artasoro eta aziendarentzat larre zabalak eratu zituztenean ere, eraldaketa itzela gertatu zen eta, ziur aski, berau bultzatu zutenak kritikatu egingo zituzten garai hartan.

ZETIAZ-Elhuyar: Etorkizunari begira, nola ikusten duzu mendialdeko nekazaritzaren garapena?

Xabier Arruti: 5b Helburua eta Leader II programak 1994. urtean hasi eta 1999. urtera arte onartu ziren. Hortik aurrera, ez dakigu programa hauek indarrean segituko duten ala ez, baina badirudi Europako Nekazaritza Politikan aldaketa nabarmenak aurreikusten direla, batez ere Ekialdeko estatuei Europako Batasunean sartzeko aukera ematea aztertzen ari direlako. Horrek badirudi dirulaguntzen murriztea eta aukeraketa selektiboagoa ekarri duela. Dena den, zonalde behartsuenek eta nekazaritzako gune arriskutsuenek dirulaguntzak izaten segituko dutela uste dut, baina hori bai, beti ere ingurugiroa errespetatzen duten nekazaritzako ereduak bultzatuz. ✓

lanera joan zirenean, baserriko ustiapen asko mantendu egin ziren eta autore batek baino gehiagok aipatzen du emakumeak une horretan egindako lana. Izan ere, egoera horretan, emakumearen lana areagotu egin zen eta baserriko zenbait eginkizun mantentzea lortu zen.

Arazoak nonahi

60. eta 70.eko hamarkadetan gertaturiko fenomeno hauek, neurri handi batean gaur egungo nekazaritza egituratu dute. Nekazaritzan agertzen diren berrikuntza teknologikoak gauzatzeko

eta praktikan jartzeko lur aproposak gero eta urriagoak dira, eta ondorioz, lur-azalera berean produkzioa emendatzeko joera izaten da. Horra hor eskutik helduta datozen bi arazo: lur falta batetik eta berauen intentsifikazioa bestetik.

Lur faltaren arazoa, nekazaritzako sindikatuak behin eta berriro salatu izan duten arazoa da. Esaterako, EHNE sindikatuaren ustez, gure gizartean azpiegitura urbanoek nekazaritzako lurrekiko lehentasun nabarmena dute. Eta ez soilik etxegintzan hartzen diren lurrengatik. Industrialdeak, gasbideak, autobide eta errepede berri askok ere, nekazaritzako

lurrak estaltzen dituzte. Ondorioz, Euskal Herri txiki eta malakartsu honetan berez eskasak diren nekazaritzarako lur egokiak urritzen ari dira. Horregatik, Lurralde Antolaketak egiten direnean, nekazaritzarako lurrek gaur egun ez duten garrantzia ematea eskatu izan dute nekazariak.

Arestian aipaturiko beste arazoa intentsifikazioarena da. Inguaruotan ustiatzen diren lur gehienak txikiak izan ohi dira eta, ondorioz, lur-azalera txiki horiei etekin handiagoa eskatzen zaie. Horretarako derrigorrezkoa da lur horietara kanpotik energia ekartzea, hots, ongarriztea. Kasu askotan, ez dira errentagarri



NEKAZARITZA

Nekazaritzan hartzen diren oinarrizko erabaki politiko askok, Europan hartzen badira ere, eragin nabarmena izaten dute askorentzat; agian beste lan-sektore askotan baino gehiago.



Noaual

suertatzen intentsifikazio-maila horiek eta kasu gehienetan lur horiek hondatu egiten dira eta ingurugiroan kalteak sortu. 1997.eko irailean EHNE sindikatuak antolatu zituen desintentsifikazioari buruzko ihardunaldietan, hainbat proposamen plazaratu zen; esaterako, nekazaritzaren inguruko ikerketak berbideratzeko premia azaldu zen. Izan ere, nekazaritzaren inguruko ikerketa gehienak, produkzioa emendatzeko tekniketara bideratuta daudela zioten eta agian egokiagoa litzatekeela, ikerketa hauek elikagaien kalitatea hobetzera joko balute. Bestetik beharrezkotzat jotzen zuten, prezioen politikak diseinatzeko garaian produkzio-kostuen eta prezioen arteko korrelazioa ezartzea. Azken urteotan mendialdeko nekazaritzan agertu den beste elementu berri bat turismoa izan da. Ezin esan turismoa arazo denik, baina zenbaitzuen ustez, tentuz erabili beharreko diru-iturria litzateke. ENBA sindikatuak iritzi garbia du gai honen inguruan. Hauen ustez: "Nekazal turismoa errenta osatzeko iharduera da eta, horrenbestez, nekazaritza guneeetako turismoa

baserritarrengan oinarritu egin behar da. Iharduera osagarri hauek oso interesgarriak lirateke enpresako lan-banaketa egiteko eta kasu gehienetan, emakume eta gazteentzat oso aproposa izango litzateke, beren lan proiektua izan dezaten".

Bidea ibiliz egiten da

Ohituta gaude hedabideetan nekazarien aldarrikapen eta ke-xuak ikusi eta entzuten. Askotan kaletarroi zaila zaigu arrangura hauek ulertzea. Izan ere, nekazaritzan hartzen diren oinarrizko erabaki politiko askok, berebiziko garrantzia izaten du baserri txiki nahiz handietako etorkizuneari. Erabaki askok, Europan hartzen badira ere, eragin nabarmena izaten dute askorentzat; agian beste lan-sektore askotan baino gehiago. Gauza jakina da Europako Nekazaritza Politika Bateratuak (PAC/NPB) euskal nekazariengan buruhauste asko sortu duela. NPB egitean, Europako estatuen interes nazionalak, komunitatearen interesen aurretik jarri dira maiz, eta horregatik zenbait ne-

kazaritzako azpisektore eta era berean, zenbait eskualde, oso kaltetuak irten dira erabaki horietatik.


Euskal Herrian bultzatu nahi den kalitatezko nekazaritzak, Europako arategi orokor eta urrunekin egiten du topo askotan. Alboko herriko merkatuan, kalitatezko produktuak saltzen dituen nekazariari, Europako produkzio-indizeetan oinarrituriko merkatu librearen politika ezartzea ez dirudi oso bidezkoa denik.

Edonola ere, Europako NPB eboluzionatzen eta garatzen joan da, eta hasieran zuen kutsu esperimental hura baztertu eta gero eta pragmatikoagoa bihurtuz joan da. Bide horretatik sortu ziren, 5b eskualdeak garatzeko programak. Mendialdeko herri txikietan era guztietako azpiegiturak eta zerbitzuak sortuz, bertako nekazaritza tradizionala, iharduera errentagarri eta bideragarri bihurtzeko asmoa zegoen. Neurri hauekin, era berean, herri horiek, herri izaten jarraitzeko baliabideak jartzen dira. Izan ere, 5b eskualdeetan sartzen diren herri gehienek, biztanlegoaren

Inguruotan ustiatzen diren lur gehienak txikiak izan ohi dira eta, ondorioz, lur-azalera txiki horiei etekin handiagoa eskatzen zaie.



Noaual



Noaual



Eskulan eskasiak eraldaketa teknologiko handiak bultzarazi ditu Euskal Herriko nekazaritzan.



Noaual

murrizketa nabarmena jasan dute azken urte hauetan.

5b programa, 1994-1999 denboraldirako diseinatu zen eta EAEn 2.600 milioiko aurrekontua du. Euskal Herriko nekazaritzako eskualde gehienek jasotzen dituzte diru hauek.

Dena den, Europatik gertuago, badugu etorkizuneko nekazaritza baldintzatuko duen tresneria. Duela gutxi onetsi den Baserri aldeko Estrategi Plana (1997-2000) dugu horietako bat. Plangintza honek ekarri duen berrikuntza nabarmenena oso adierazgarria izan daiteke etorkizuneko nekazaritzaren nondik norakoak finkatzeko. Izan ere,

Nekazaritza-eskualdeek betetzen duten eginkizun multifuntzionala onartu eta barneratu egin da Baserrialdeko Estrategi Planean



Noaual

Baserrialdeko Estrategi Plan honetan, nekazaritza-eskualdeek betetzen duten eginkizun multifuntzionala onartu eta barneratu egin da. Hau da, orain artean, nekazaritza beste sektore ekonomiko bat bailitzan planifikatu izan da. Oraingoan ordea, baserrialdeak duen funtzio ekonomiko horrez gain, funtzio ekologiko eta soziokulturala onartu zaizkio, eta horren arabera, beraien garapena finkatu da. Plangintzak, guztira, 182.000 milioiko aurrekontua iragarri du.

Aipaturiko funtzio ekonomiko hori garatzeko aurrekusi diren ekintza nagusiak, elikagaien kalitatearen inguruan bildu dira. Izan ere, Euskal Herriko nekazaritzak etorkizunik izango badu, beratu da jorratu beharreko atalik garrantzitsuena.

Bestalde, emakumeak eta gazteak, nekazaritzako ihardueretan murgiltzeko programa bereziak ere aurrekusi dira. Gaur egungo nekazariak, batezbeste, zaharregiak dira sektorea berritu eta aurrera ateratzeko eta jende gaztearen premia sumatu da.

Baserrialdeari aitortu zaion funtzio ekologikoa bermatzeko berriz, agrodibertsitatearen kontserbazioaren aldeko apustua

egin da. Bestetik, lurraldearen antolamendu egokia burutuz, baserrialdean ingurugiro-heziketa, aisialdia eta garapena uztartzeko saiakera aipatzen da Baserrialdeko Plangintza Orokorrean. Ildo beretik, gaur egun dauden ingurune babestuez gain beste 46 eremu babesteko premia ikusi du plangintza berri honek.

Azkenik, funtzio soziokulturalaren ardatza, baserrialdeko biztanleen bizi-kalitatearen hobekuntzan egituratu da, beste egitasmo askoren artean.

Baserrialdeko Plangintza Orokor honek, nekazaritzaren munduko ordezkari sozial eta ekonomiko gehien oniritzia jaso zuen. Orain ordea, zailena geratzen da; paperean idatzitakoa gauzatzea, alegia.

Hotzean pentsatuta, egitasmo, plangintza eta hausnarketa hauen guztien premia izango du euskal nekazaritzak. Izan ere, eta ezkorrak izateko intentziorik gabe, nekazaritza nola edo hala aurrera aterako delakoan gaude, baina ia orain arte ezagutu dugun baserrialde bukolikoa desagertuzat jo genezake.



* Biologian lizentziatua

